

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Luzaroan gogoratuko den desafioa Xoxokako jaietan

Gabirondo eta Irazustabarrena nagusitu ziren, Telleria anaiek estu-estu hartu bazituzten ere. Jendetza erakarri zuten / 8-9

Errefusa sailkatzeko urrats berria

Andoaingo Udalak azaroan errefusa sailkatzeko edukiontzi grisa txertatuko du herri osoan, lehenago hiru auzunetan proba egin eta gero / 8-9

Familia ikuskizuna: 'Burbuila'

Urriak 28, igandea
17:30, Sarobe AEG
3 €

Sarrerak
online eros
daitezke




Xabier Lasa ANDOAIN

Zure ustetan, euskaldunon nortasuna ezagutu edo ulertzeko ezinbestekoa da Gerra kKarlismak aztertzea. Zergatik?

Lehenak, eta batipat bigarrenak hainbat gako ematen dizkigute. Izan ere, aro historiko horietan joan baitzen definitzen eta sendotzen gure izatea. Bazirudien lehenengoa amaitu ostean, foruak indargabetu behar zirela, baina ez zen hala izan. Bigarregoa erekin gertatu zen. Esatera batera, derrigorrezko soldaduska ezarri zeitzaion euskal gaztediari. Karlismen bandoan borroka egin zuten familiak izan ziren kaltetuena. Lau urteko iraupena zuen zerbitzu horrek, heriotzarako txartela eskuratzea suposa zezakeen, ze matxinadak gertatzen ziren Ameriketako kolonietara edo Afrikara destinatzen zituzten askotan; tifusa edo sukhar horia bezalako gaitz hilkorak ahaztu gabe. Horrela, foruen abolizioak Euskal Herriaren aurkako zigortzat hartu zen, eta erreazioz, indartu egin zuen geure ohituren, hizkuntzaren, kulturaren, etabarren aldeko sentimendu kolektiboa. Iraganean bizitutako autogobernuarekiko mina piztu zen, ideologi bateko zein besteko jendearengan.

Liburuak garrantzia ematen dio Seiurteko Demokratikoari.

Arreta berezia jarri beharko genioke, bai. Isabel IIaren erreinaldian, gobernu diktatorialen kontrako iraultza bultzatu zuten zenbait militarrek 1868ko irailan. Iraultza Loriatsua deitu zioten horren eraginez, estatu osoan batzorde iraultzaileak eratu ziren, errepublika federala eskatuz. Isabel II-k tronua utzi egin behar izan zuen, eta Seiurteko Demokratikoaren aroa etorri zen (1868-1874). Era horretan, Espainian demokrazia lehenbiziko aldiz ezarri zen, eta gaur egun oraindik eztabaigarri diren planteamendu politikoak formulatu ziren; hala nola, monarkia ala errepublika, autodeterminazio eskubidea, eliza eta estatuaren arteko bereizketa... Behin-behineko gobernuak ezarri zituen legeak ez ziren gogokoak izan ez karlistentzat ezta errepublikano erradikalentzat ere, eta gaitzespen horretan ditu sustraiak 1872an piztu zen gerrak. Bi pentsaera kontrajarriekin egin zuten talka borroka zelaietan Jaungoikoaren eta balio tradi-



Jose Antonio Recondo egilea, datorren urriaren 24an Basteron aurkeztuko duen liburu eskuetan duela. AIURRI

Bigarren Karlismaldia hizpide izango dute Basteron

Jose Antonio Recondo tolosarrak 'La 2ª Guerra Carlista en Gipuzkoa (1872-1876)' liburu aurkeztuko du Andoainen, urriaren 24an. Ekitaldian zehar Andoainen eta Urnietan gertatu ziren gora behera militarrek hizpide izango ditu

zionalen defentsa batetik, eta Errepublikaren defentsa bestetik.

Garai hartako Karlismen artean Recondo abizeneko buruzagia agertzen da.

Nire arbasoa izan zen. Kontakutako dizut nola izan nuen haren berri. Ni medikua izan naiz ogibidez, baina orain urte batzuk, Juan Garmendia Larrañaga etnologoak historia ikerketak hasteko tentatu ninduen, esanez karlisten artean izan zela buruzagi bat Recondo abizenekoa. Jose Maria Recondo zen buruzagi hori, eta hor non deskubritu nuen nire birraitona zela! 1872an matxinatu egin zen Santa Cruz apaizarekin eta Tolosaldea eta Goierriko jendearekin; porrot egin zuten. Historio txiki hori harrigarria iruditu zitzaidan, nire familia liberal-errepublikanotzat jo nuelako betidanik. Kontua da horrek animatu ninduela gertakizun historikoekin sakontzera.

Ikerketan zehar, nire birraitonarekin ibili zen bere seme baten memoriak topatu nituen, eta gainera, Ataunen zenbait pertsona ezagutu nituen bazukatenak Recondoren ibilaren aditza, umetan entzunda. Arian-arian, Seiurte Demokratikoak eta Gipuzkoako Gerra Karlismak osatzen duten epe historikoan (1868-1876) modu sutsu batean murgildu nintzen.

Gerrako gorabeheren kontakizunari irudi asko erantsi dizkiozu liburuan...

Irudiek irakurketa errazten dute eta gainera, artistikoki ederrak dira oso. Hitzaldian berdintsu jokatu dut, eta ilustrazio, grabatu, argazki eta planu zahar ugari erakutsiko ditut. European, II. Gerra Karlismatik kontinentean gertatzen zen azkeneko erlijio-gerratzat hartu zen, eta egundoko interesarekin jarraitu ziren bataila-zelaietako gorabeherak. Aldizkariak, erreportariak gain ilustratzaileak bidali zituzten hona, eta oso irudi ikusgarriak utzi zituzkuten. 200 ilustraziotik gora sartu ditut liburuan, hainbat iturri (artxi-boak, aldizkariak...) arakatu eta gero.

Andoainen eta eskualdean gertatu ziren operazio militarrek modu berezian azaltzeko asmoa daukazu.

Andoain leku estrategikoa izan zen karlistentzat. Euren kuartel nagusia izan zen. Liberalen esku zeuden Donostia, Hernani, Iru-

"KARLISTEK KARLISTAK BIDEA IREKI ZUTEN ANDOAIN ETA LASTAOLAKO ADUANAREN ARTEAN"

nen aurka joateko operazioen abiapuntua izan zen Andoain karlistentzat. Sorabillan, Aze-laingo jauregian kuartela eta Erretoretxean ofizialen bizilekua ezarri zituzten. Patricio Orkaiztegi zen Sorabillako apaiza, karlista porrokatua eta Santa Kruz apaizaren adiskidea.

Horrez gain, Andoain bidegurutzea ere izan zen; Gipuzkoako kostaldea eta barnealdea lotzen zituen gunea zen. Trenari esker oso ondo komunikatua zegoen Gipuzkoako barnealdearekin, eta bestalde, karlistek, Karlistak Bidea izeneko bidea ireki zuten Andoain eta mugan kokatzen zen Lastaolako aduanaren artean. Autopista modukoa zen bide

"BURUNTZALDEAN GOTORLEKU SISTEMA OSOA EZARRI ZUTEN BEREN BATERIA ETA LUBAKIEKIN"

hori karlistentzat; oso modu azkarrean, gerrako materiala eta soldaduak garraiatzea ahalbidetzen zien.

Bide hori babesteko, karlistek hainbat gotorleku eraiki zituzten Atxularren, Atxetilunen (Besabi inguruan)... Horiei batu behar zaizkie ezarri zituztenak liberalen esku zegoen Hernaniri eraso egiteko edo eta haien erasoetatik defenditzeko, hots, Buruntzan, Derrepenten, Arrikarten, Azkorten... Azken batean, Buruntzaldean gotorleku sistema osoa ezarri zuten beren bateria, lubaki eta abarrekin. Jakina, liberalek ere beste hainbeste egin zuten Hernaniko inguruetan.



Karlisten gudarostea Hernaniko irteeran. Marrazkiaren egileak A letrarekin Goiburu seinalatu zuen, B-rekin Urnieta eta C-rekin Andoain aldera doan bidea. Belkoain (E) edota Buruntza (G) mendiak zehaztuta agertzen dira 1874ko abenduaren 30eko data duen marrazkian. GFA KMK

Bi Karlistaldiak labor azalduta

1833tik 1876rako epe historikoan, Euskal Herrian bi karlistaldi izan ziren, hiru Espainiako estatuan. Europako historian errege tronua ondo ondo helburu zuten azken gerrak izan ziren, eta horien azpian, ideologia kontrajarriek egin zuten topo aurrez aurre. Batik bat Euskal Herria eduki zuten indarra karlistek, eta horretan berebiziko eragina eduki zuen foruen galeren auziak.

Karlistismoak, "Jaungoikoa aberria eta Lege zaharra" lelopean monarkia absolutista tradizionalista defendatzen zuen, eta matxinatze saio ugari bultzatu zituen, liberalismoaren aurka lehenbizi eta errepublikanismoaren aurka geroxeago.

Lehen Karlistaldia deituriko gerra (1833-1839)

Fernando VII erregea hil ondoren piztu zen. Bere alaba Isabel II. izendatu zuten; hiru urte besterik ez zituen, eta bere ama Maria Kristina Borboikoak botere absolutua bereganatu zuen, sektore liberalen oniritziarekin. Karlistek, ordea, Fernando VII-aren anaia Karlos infantea nahi zuten errege izatea, eta matxinada militarra bultzatu

zuten, gerra piztuz. Nekazari giroko biztanlegoaren eta kleroaren babesa jaso zuten karlistek batik bat, eta Euskal Herria eta Katalunia izan ziren nagusi. Gerra horen baitan, Andoainen 1837ko irailean karlista eta liberalen artean liskar bortitza gertatu zen, odoltsuenetakoa gerra osoan zehar (660 hildako aipatu ohi da), eta gertakizun horixe da hain zuten, azken urtetan Larramendi Bazkunaren eskutik kaleetan barrena antzestu izan dena.

Bigarren Karlistaldia (1873-1876)

Hego Euskal Herria izan zuen borroka leku nagusi, berriz ere. Hura ulertzeko aurrekari historikoetara jo behar da lehenbizi, hala ere, 1868an zenbait militar matxinatu egin ziren diktaduraren antza zeukan sistema politikoaren aurka. Espainian iraultza piztu zen (Iraultza Loriatsua), eta Isabel II. erreginak ihes egin

BAZKUNAK BI URTEZ BEHIN LEHEN KARLISTALDIKO GERTAERA ANTZEZTEN DU

BIGARREN KARLISTALDIAN HEGO EUSKAL HERRIA IZAN ZEN BORROKA LEKU NAGUSIA

behari izan zuen. Seiurteko Demokratikoa izeneko aro historikoari (1868-1874) eman zitzaion hasiera horrela. 1869an, konstituzio berri bat osatu zen korteean, eta monarkia konstituzionala ezarri zuten sistema politiko bezala. 1871ean, Saboyako Amadeo II Espainiako errege izendatu zuten; karlisten eta errepublikano erradikalen kontrako jarrera eragin zuen izendapenak. Egoera politiko ezegonkorra zela eta, bi urteren ostean Amadeok errenuntzia egin zuen. Ordurako, karlistak matxinatu egin ziren, Bigarren Karlistaldiari hasiera emanez (1872-1876). Karlistek, "Jaungoikoa, Aberria eta Erregea" leloa hartuta, Errepublikaren aurka eta balio tradizionalen alde egin zuten gogor. Aldi berean, Karlos VII Borboikoa errege-tronuan jartzeko eskubidea aldarrikatu zuten.

1874an, gobernu liberalak Alfonso XII errege izendatu zuen (Berrezarkuntza Borbonikoa). Borroka militarra 1876ko otsailean amaitu zen, liberalen garaipenarekin. Agudo Foruen abolizio ofiziala heldu zen, Canovas del Castilloren gobernuaren eskutik.



Santa Krutz apaizarekin

1870ean ateratako argazkia Azelain familiak Ziburun zuen etxean aterata dago. Bertan agertzen da Santa Kruz beste hiru apaizen alboan. Ezkerretik eskuinera: Luciano Mendizabal Tolosako apaiza, Patricio Orkaiztegi Sorabillako apaiza eta Francisco de Felipe Amezketa apaiza.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

AITZIBER AMANTEGI URNIETA

Sanmieletako gertakizunak

Denok dakigu festen helburua ongi pasatzea dela, herrian egiten diren jardueratan parte hartuz eta giro sano eta lagunkoiaz gozatuz. Ez da ba hori nire bi lagunak gertatu zaiena, joan den irailaren 28an txosnagunean zeuden kontzertu bat ikusten eta taldeak eszenatokira igotzera gonbidatu zuen hauetako bat, eszenatokian txorakeriaren bat esan eta jaitzi zenean, lau neska hurbildu zitzaizkion eta haietako batek ukabilkada bat eman zion. Beste laguna gerturatu zen, zer gertatzen ari zen jakiteko eta momentu horretan eszenatik oihuka hasi ziren: "Erasotzaileak kanpora".

Mundu guztia harrituta geratu zen, gertatu zena ulertu gabe. Momentu horretan konturatu ziren nire lagunak oihuak beraientzat zirela, ezin sinetsirik, galdezka hasi ziren ea zer gertatu zen, baina inork ez zien erantzunik ematen, oihuak besterik ez. Ez dakit nolaz, Udaltzaingoa azaldu zen eta nire lagunak joateko gomendioa egin zieten, iskanbila ekiditeko edo, errudunak beraiek balira bezala. Txosnatatik bota zituzten, batere arrazoirik eman gabe. Nire lagunak, burumakur, alde egin behar izan zuten gertatutakoa ulertu gabe.

Poxta-zaharreko kideekin hitz egiten saiatu gara (eraso salaketa beraien txosnan jarri zutelako eta hainbat kide eszenatokian builaka aritu zirelako) azal diezaguten zein arrazoiengatik bota zituzten bertatik. Eman diguten argudio bakarra audio anonimo batzuk iritsi zaizkiela da -hau bi aste beranduago, momentuan ez baitzuten arrazoirik eman-, esanez neska bat erasotua sentitu zela, ez dakigu zein arrazoiengatik.

Kide hauek nire lagunak izena garbitzeko barkamena eskatu eta gertatutakoa argitu beharrean, aitzakiak besterik ez dizkigute jarri. Argi daukadana da, hanka sartu zutela, neska baten hitza besterik gabe sinesteagatik, herriko bi mutilen izen ona zikindu dutela, ezer txarrik egin ez dutenean. Orain, aurpegia emateko momentuan, isil-isilik geratu dira.

Egun hartatik gauza asko esan dira herrian, onak ez noski, hiru neska jo zituztela, titiak eta ipurdiak ukitzen ibili zirela... Guzti hori gezurra da, hori argi utzi besterik ez genuen nahi.

Ikusita inork ez duela ezer egiteko asmorik, zerikusirik ez dutela diotelako, gertatutakoa argitu nahi nuen eta mundu guztiak jakin dezala, Sanmieletan txosnagunen gertatutakoa eraso bat izan zela bai, baina nire lagunak aurka.

POSTONTZIA

Euskal Herriko erdigune geografikora mendi martxa

INDEPENDENTISTAK SAREA

Askatasunaren oihua lau haizetara eta 2019ko Aberri Egunari buruzko proposamena Euskal Herriko erdigunetik, Euskal lurralde guztien erdigunetik askatasunaren oihua zabaltu nahi dugu lau haizetara: herri zahar honek bere tokia nahi du munduan eta bere etorkizuna eraiki nahi du askatasun osoz, inolako menpekotasunik gabe.

Orain dela 500 urte, Nafarroako Erresuma hondatu zigutenetik, ez da bakerik izan gure herrian. Burujabetza berreskuratzeko borrokaren hariak ordutik gaurdaino dirau etengabe. Borroka luze horretan jauzi berri bat egin eta Euskal Estatu burujabea berreskuratzeko prozesua

martxan jartzeko ordua iritsi da.

Azken urteotan Kataluniara begira gaude, orain, bi herrien arteko indarrak batzeko garaia da. Hemen ere prozesu soberanista martxan jarri eta Kataluniarekin batera, estrategia komun baten bitartez, Estatu autoritarioari aurre egin eta bi herriok independentziaren bidean aurrera egiteko ordua da.

Aberri eguna

Aipatutako burujabetza prozesu horri begira, gure egutegi politikoko data garrantzitsu bati buruzko hausnarketa egin nahi dugu: Aberri egunari buruz.

Independentistak Sareak azken bederatzi Aberri egunak antolatu ditu, 2010etik

hona. Orain, jauzi berri bat egiteko unea iritsi dela uste dugu. Balizko burujabetza prozesu bati begira Aberri egunak bere tokia eta bere papera izan beharko luke jokozelai politikoan. Diadak Kataluniako prozesuan duen garrantzia hartu dezakegu erreferentzia moduan. Illo horretan, datorren urteko Aberri egunean urratsa egitea planteatzen dugu: gure herriaren etorkizuna erabakitze eskubidean eta demokrazian oinarrituta eraikitzearen alde dauden eragile politiko eta sozial guztiek bultzatutako Aberri egun bateratua antolatzea proposatzen dugu. Ziur gaude euskal herritarren gehiengo oso zabalak eta diaspora osoak ilusio handiz hartuko luken berria dela.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia Hilekotasun Berlinguasmerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Saltoki handiekin gutxieneko kontrola egon beharko luke"

JONE ETXEBERRIA XIXORI BELARDENDA

Salkinekin bat egin zuen iraileko kanpaina ikusgarrian, eta dagoeneko etorkizunari begira jarrita daude. Azaroaren 13an, esaterako, makrobiotikari buruzko hitzaldia antolatuta dute, "Elikaduran oinarrituz nola ekin bide berri bati" izenburupean.

Nolako izan da iraileko Salkinen kanpainaren erantzuna?

Herritarra ohartarazteko sistema izan da. Gaia kalera atera eta ingurua komertzio txikien egoera larriaz jabetzeko eta horren inguruan hausnartzeko kanpaina garrantzitsua iruditu zait niri. Luzera begira, ez dago jakiterik honek ze ondorio izango dituen, baina positiboa da tokian tokiko merkataritzaren inguruan hausnartzen hastea.

Kanpainaren ondorioz bezero kopurua igo al zaizue?

Baten bat gehiago agian bai, baina nik ez dut horrelako aldaketarik sentitu. Denborak esango du hori.



Andoain Xixoriren bi merkatalgune daude. AIURRI

Herritarrek eta erakundeek zer egin dezakete merkataritzaren alde?

Asko hitz egiten da komertzio txikiak mantentzearen alde. Baina gero merkatalgune handiek baimenak eskatzean,

horiei neurririk gabe ematen jarraitzen dutela ikusten duzunean, kontraesan handia sortzen da.

Baimen horiekin eta denda handien irekierekin, komertzio txikiak ixtera

bultzatzen ari gara eta kontraesan horiekin ez goaz inora. Gutxieneko kontrola egon beharko luke, bestela ez du balio komertzio txikiak bultzatu behar direla esateak.

Sare sozialen erabilera egiten ari dira hainbat merkatalgune. Zuek erabiltzen al dituzue?

Sare sozialen erabilera ondo legokeela iruditzen zait, baina guk ez ditugu erabiltzen. Merkatu txikia izanik eta langile gutxi izanik, hori gutzia kudeatzeko ez dugu denborarik izaten.

Zer esango zenieke herritarrei herriko merkatalguneetan gehiago kontsumitzeko?

Gertuko komertziook beste mota bateko guneek eman ezin duten gertutasuna eta konfiantza ematen dugula iruditzen zait. Gure baliorik garrantzitsuen gertutasuna, konfiantza eta produktuen kalitatea direla esango nuke.

Niri, adibidez, izugarrizko deskonfiantza sortzen dit saltzen ari zaizkidan produktuaren kalitatearen inguruan.

Xixorin konfiantza eragiten duten produktuak saltzen saiatzen naiz. Prezioari bakarrik begiratu gabe, garrantzitsuen erosten ari garena benetan kalitatezkoa den ala ez ohartaraztea da.

HAU ERE BADUGU!

Apustu etxea Andoaingo Zumea plazan



Xabier Lasa kazetariak kalean dagoen eztabaida lerrootara ekarri zuen, eta astekarian argitaratutako iritziak soka luzea ekarri du Facebook sarean. Bereziki, Andoaindarras y punto orrialdean. Iruzkin guztiak Zumea plazako gunearen eta apustu etxeen aurkakoa izan dira. Erabiltzaile batek tabakoarekin eta alkoholarekin dauden murrizpen berdinak eskatzen zituen. Bereziki joko horien propaganda zabaltzeko garaian. Aurkako iritziak nagusitu dira, orain arte.

Herri kirolak oso maiteak dira sare sozialetan



Tokiko hedabideetan irismen handia izan ohi du bertsoak, baita herri kirolek ere. Aiurri bi jardueren albisteak eta bideoak bisitari ugari gogoko izan ohi dira. Xoxokan herri kirol erakustaldi ezberdinak izan dira, eta bertsoa ere ez da falta izan. Herri kirolei dagokionez, gazteen arteko demak edota urriaren 12ko desafioak zabalpen handia izan dute sare sozialen erabiltzaileen artean.

KANPAINA

"Gure txanda da!", inklusioa lantzeko Atzegiren egitasmo berria

Atzegiko arduradunek aurtengo kanpaina aurkeztu dute, euren kideak boluntariotza egitasmoetan txertatzeko asmoarekin. 'Gure txanda da!' izenburupean, aurtengo kanpainaren helburua bikoitza da: Adimen desgaitasuna duten pertsonen boluntario izateko duten gaitasuna bistaraztea; eta bestetik, Atzegiko kideei boluntario izateko aukera berriak eskaintzea.

Izan ere, Atzegiren arabera boluntariotzan parte hartzean inklusibitatea lantzen da. Uste dena baino jarduera gehiagotan laguntza eskaini dezaketelako.

GORA ETA BEHERA



Kirolariak, antolatzaileak, auzotarrak eta ikusleak

Meritu handikoa da Xoxoka bezalako auzoan hain tamaina handiko desafioa antolatzea. Sortutako ikusmina handia izan zen, eta kirolariak eskainitako ikuskizuna ez zen gutxiagorako izan. Horrexegatik jai batzordeari, kirolariei, zaletuei eta auzotarrei esker ona adierazi behar zaie. Denak ere luzaroan gogoratuko den desafioaren parte izan baitziren.



AIURRI



Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariak Sorabillan, joan zen urriaren 10ean egindako agerraldian. AIURRI

Birziklapenean sakontzeko urrats berria

Azaroan hasita, Andoaingo Udalak txartel elektronikoarekin irekiko den edukiontzi grisa ezarriko duela iragarri du. Tolosako Mankomunitatearekin elkarlanean sustatu du egitasmo berria, orain arteko edukiontzi berdea ordezkatzera datorrena

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

“Birziklatze neurrietan sakondu eta errefusaren edukiontzia ixteko erabakia hartu du Andoaingo Udalak” goiburutzat harturik, joan zen asteazken zaborren sailkapenerako egitasmo berria aurkeztu zuten Sorabillan. Egungo birziklapen tasa %45ekoa da Andoaingen, alde handiz Tolosaldeko Mankomunitateko baxuena, eta Udalak bere buruari 2016rako helburu gisa jarritako %60tik oso urrun. Neurri zuzentzaile modura, Udaleko Zerbitzueta Batzordean errefusari dagokion edukiontzia ixteko erabakia har-

tu zen, EHBildu, EAJ-PNV, Gamos eta Irabaziren aldeko botoekin. Iragarri berri duten urrats hori eman aurretik, proba modura indarrean egon da herriko hiru auzunetan.

Hiru auzunetako esperientzia

Pasa den martxoan errefusaren edukiontzi berdea itxi eta Sorabilla, Alejandro Calonge eta Olagainen esperientzia pilotoa ezarri zuten. Proba hori baliagarri izan da Udalarentzat eta Mankomunitatearentzat, herri osora zabalduko dutela iragarri baitute. Azaroan hasita, errefu-

sa botatzeko edukiontziak zerraila izango du eta erabiltzaile bakoitzak astean lau aldiz ireki ahal izango du, berak nahi duen egunean. Behar bereziak dituzten familiei maizago irekitzeko baimena emango zaie, baina eurek egin beharko dute eskerra hori.

**ORGANIKOA
ETA ERREFUSA
TXARTEL
BERDINAREKIN
IREKIKO DIRA**



Sistema berriaren gakoak



OHIKO ERABILTZAILEA
ASTEAN LAU ALDIZ ERABILGARRI
Gainerako egunetan itxita.



ERABILTZAILE BEREZIA
ASTE OSOAN ERABILGARRI
Pardelak eta antzekoak botatzeko.



TXARTEL BERDINA
ORGANIKOAREN BERDINA
Bietarako baliagarria izango da.



TXARTELA ETXERAINO
EZ DUENAK, ETXEAN JASOKO DU
Erabiltzeko ezinbestekoa da.

Gaikako bilketa Andoaingen



2016:
%31,07

Organikoa ezarri arte gaikako bilketa %25etik behera zegoen.

2017:
%42,33

Edukiontzi marroien txertaketak zerikusi zuzena izan zuen igoeran.

2018:
%44,76

Urtarrila-abuztura bitarteko batzorde besteko kopurua.

Helburua:
%60,00

2013-16 epealdian bilketa %60era iristea helburu zuten.

Alderdi politiko nagusien balorazioa



EH BILDU
ANDOAIN

“EH Bildutik uste dugu albiste ona dela errefusa ixteko proposamenak lortutako babes zabala. 4 alderdi ezberdin eta 17 zinegotzietatik 13k babesten dute neurria. Gauza askotan desadostasunak egon arren, eta neurri hau hartzeko unean izan ditugun eztabaiden gainetik, herriarentzat ona den neurri bat dela azpimarratu nahi dugu.

Birziklapen tasa igotzea ezinbestekoa dugu Andoainean, eta horretarako sistema hobetzen joan behar da. Herriarrek kontzientzia hartzearekin batera, horrelako neurriak hartu behar dira.

Gai honetan, iraganeko ika-mikak albo batera utzi eta denok norabide berean lan egitea garrantzitsua dela uste dugu. Gure inguruneaz ari gara, etorkizunean herri osasuntsu eta jasangarri batean bizitzeko hartu beharreko neurrietaz ari gara”.



PSE-EE
ANDOAIN

“Agerraldia eskaini zuten alkateak eta gainerako zinegotziek ez dakite proba modura martxan jarri den hiru auzunetan zenbat kilogramo birziklatu diren, eta zenbat errefusa sortu. Izan ere Mankomunitatea ez da informazio hori auzoz auzo bereizteko gai izan, sozialistok behin baino gehiagotan eskatu dugun informazioa baita. Dakigunagatik, Alejandro Calongen edukiontzi marroia irekiera %39tik %63ra pasa da hilabeteotan, Sorabillan %22tik %58ra eta Olagainen %44tik %78ra. Ez dakiguna birziklatu den kopurua da, eta benetan ondo birziklatzen ari garen edo ez jakitea garrantzitsua da.

Edukiontzi grisaren alde agertu gara, eta beti irekita egotearen alde. Ez dakigu zergatik tematzen diren edukiontzi horren itxierarekin”.



EAJ-PNV
ANDOAIN

“Herrian gaikako bilketa hobetzeko hartu diren neurriengatik pozik gaude, herriko birziklatze tasa apala hobetzen lagunduko baitute. Eman den pausua oso albiste ona da eta azken urteetan aldarrikatu denarekin bat egiten du. Hala eta guztia ere, gobernu taldeari leporatzen diogu txipadun edukiontzi grisaren ezartzea denboran luzatuz agertu duten pasibitateak. Mankomunitatearen bultzada ezinbestekoa izan da, pausu hau eman eta bilketa sisteman hobekuntzak ezarri ahal izateko. Bide batez, gogoratu nahi dugu orain urtebete, EAJk mozioa erregistratu zuela aldaketa batzuk planteatuz: sortzaile berezientzako bilketa zabaltzea, edo txipadun edukiontzi grisak ezartzea, berdeak ordezkatuz”.



GANEMOS
ANDOAIN

“Edukiontzi berria jartzeko egon den adostasuna azpimarratu nahiko genuke, udal batzarraldian ia aho batez onartu baita. Ipar Haizea plataforma ere gogoan hartu nahiko genuke, Udal ordezkaritza dugun alderdi politiko ezberdinak batu gaituelako herriko birziklapen tasa handitzeko helburuan. Aurreko legegintzaldian, orduko ordezkaritza politikoko guztien oniritziarekin %60ko birziklapen tasara iristea adostu zen, eta horretara iristeko garaia da. Zumarraga, Zarautz edo Bergaran honelako sistemekin %70eko birziklapen tasa hilabetez hilabete gaintzea lortu badute, hemen zergatik ez? Ongietorria izan dadila sistema berria, Andoain jasangarri baterantz eramango gaituena”.



ZABALIK

JULEN LORENZO RIVAS IPAR HAIZEA PLATAFORMA

Azarotik aurrera emaitza onen bila

Aurreko asteazkenean –urriak 10– EH Bilduren Udal gobernuak, Ganemos eta Irabaziko zinegotziek eta Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakariak Andoain osoan errefusarentzako edukiontzi gris txipdunaren ezarpena aurkeztu zuten Sorabillan, edukiontzi hori proba pilotu moduan ezarri den auzoetako batean, Alejandro Calonge eta Olagainekin batera. Auzo horietan lortutako emaitza bikainek erakutsi digute hori dela bidea Andoaingo birziklapen tasa kaxkarrak (oraingoz batezbeste %44,76 abuztura arte, maiatzean lortuz maximoa %48,35rekin) altuagoak izateko. Hemendik auzo horietako bizilagunak zoriondu eta horrela jarrai dezaten eskatzen diegu, andoaindar guztientzat aurrekari eta eredu izan baitira.

Ipar Haizeatik adierazi, bestalde, Udal gobernuarekin eta Udalean dauden gainontzeko alderdiekin izandako bilerek bere fruituak eman dituztela, adostasun ia erabatekoa izan baitute neurriek udaletxean. Zentzu honetan, udal gobernuaren jarrera eskertu nahi dugu bereziki (bileren aurretik, edukiontzi grisa aurrera eramateko jada zuen disposizioa...) eta baita adostasunaren zati diren beste alderdiei, hasieratik proposatutako ideietan bat egin baikenuen eta denek ikusi baitzuten neurriak hartu behar zirela.

Horregatik, espero dugu azarotik aurrera, hots, edukiontzi gris txipduna ezartzen hasten direnetik aurrera, emaitza bikainak lortzea Andoainean, Tolosaldeko Mankomunitateko

GOBERNUAREKIN ETA ALDERDIEKIN IZANDAKO BILEREK BERE FRUITUAK EMAN DITUZTE

–bertako emaitza okerrenak ditugu, alde handiz– eta Gipuzkoako emaitza txarrenetakoak izatetik, batezbestekoan kokatzea gutxienez. Seguru gaude andoaindar guztion esfortzuak emaitzak emango dituela.

Bestalde, adierazi urriaren 27an 17:00etan Donostiako Mendeuren plazatik

manifestazioa deitu dugula eragile anitzek, “Erraustegia Gelditu!” lemapean. Parte hartzera animatzen dugu.

Azkenik, esan GuraSOS-ek laguntza behar duela erraustegia gelditzeko bidean burutzen ari den lanean, eta horretarako sortu dituzte Hitzartukide bonoak. Andoainean salgai daude: Ernaitza, Urrats, Irunberri, Anexo, Keinu eta Xixori.

Andoainean ezarriko den sistemak emaitza onak ematen ditu

Ibarran eta Villabonan txipadun esperientziak ondo doazela adierazi zuen Mankomunitateko lehendakariak

Erredakzioa ANDOAIN

Josu Amilibia Adunako alkatea eta Mankomunitateko lehendakaria da. Erakundearen izenean inguruko esperientzien berri eman zuen: "Gure eskualdean herri bakoitzak bere sistema ezartzea erabaki du, eta guk gure laguntza eta aholkua eman



diegu. Azken bospasei urteetan tamaina ezberdineko herrietan sistema guztiz ezberdinak izan ditugu. Andoain txertatuko den gaikako bilketa sistema berriak emaitza onak eman ditu Villabonan edo Ibarran. Egia da, orain arteko datuekin, Andoain atzetik doala emaitzei begira, baina aurrerapausoak ematen ari dira. Organikoari dagokionez, adibidez, kalitate oneko bilketa egiten da. Hiru auzunetan egin den esperientzia pilotuan ikusi den bezala, edukiontzi grisa erabiltzea erraza da”.





Bi taldeak elkarrekin, desafioa amaitu eta gero. Txalo zaparradarekin agurtu zituzten lau kirolariak, guztiak ere bikain aritu baitziren harriarekin, lasterka eta segan. Bideoa www.aiurri.eus gunean ikusgai dago. AIURRI

Desafioa, gogoangarria

Urtzi eta Beñat Telleria anaiek estu hartu bazituzten ere, Suharri Irazustabarrenak eta Julen Gabirondok irabazi zuten Xoxokako jaietako desafio handia. Sekulako ikusmina piztuta, gainera. Jendetza hurbildu baitzen hiru probak bertatik bertara ikustera

Xabier Lasa ANDOAIN

Urtzi eta Beñat Telleria anaiek minutu eta bost segundo beranduago amaitu zuten lehia, harria jasotzen, lasterka eta segan jardun ostean. Desafioak ederki erantzun zion aurreko egunetan herri kirol munduan piztua zuen

ikusminari, eta azkenerako Xoxokan euskal kirolekiko zaletasuna sortzen duten egun horietako bizi zan zen. Auzoko plazan, errepidean zein belardian etengabe izan ziren batzuren zein besteen aldeko garrasi eta animoak: “Aupa, Beñat!”, “Hel-

du gogor, Suharri!”, “Eutsi, Beñat!”, “Animo Julen!”.

Lau kirolarik bi-biren kontra eta ezaugarri ezberdinak dituzten hiru probatan indarrak neurtu behar zituztela kontutan hartuta, ez zen batere erraza izango desafioa nola diseinatu

asmatzea. Parekatua izan behar zuen, eta ikusleentzat emozioa transmitituko zuena.

Bada, zalantza izpirik gabe asmatu zutela esan behar da. Oso alde txikiarekin bukatu baitzen proba. Alde horretatik, ezin gehiago eskatu desafioa antolatu dutenei.

Lau kirolari sutsu elkarren aurka lehian

Are gutxiago eskatu behar lau kirolariei, kirol erakustaldi bikaina eskaini baitzuten, herri kirol zaleek denbora luzez gogoan hartuko dutena. Izan ere, azpimarratzekoa da laukoteak desafioaren inguruan jarri zuen borondatea. Txapelketarik edo dirurik jokoan egon ez arren, zeukaten guzti-guztia eman zuten harria jasotzen, lasterka nahiz segan. Segalariak dira Suharri eta Julen, ez harri-jasotzaileak, baina kirol jarduera berriak probatzera animatu ziren, horretarako prestakuntza

berezia eginez. Telleria anaiei, berriz, sega arrotz samar egiten zitzairen; agudo jarri ziren, ordea, belazeak zapaltzen, belarra mozteko irrikatan. Azken batean, kirolari osoak eta lehiakorrak dira lauak, herri kirolari sutsuak, eta ezaugarri horiek dena erraz dezakete.

Esan beharrik ez dago Xoxokako jaiak Euskal Herriko herri kirolen olinpiar-jokoak bilakatzeko direla. Ikustaldi politetara ohitu dira eskualdeko zaletuak urtez urte, idi-dematan, giza-probatan, segan, harria jasotzen, lasterka...

Aurtengo egitaraua hobetzea kostako da

Aurtengo programak gainezka egin duela dirudi. Eta aurtengoa eta gero, Jai Batzordeko kideei kostako zaie hobetzea, edo berdintzea behintzat. Baina ez dugu zalantzarik ahaleginak jarriko dituztela saiakeran. 2019a zain dago, honezkero.

Protagonisten adierazpenak



**JOSEBA
UBILLOS**

"Gure asmoa herri kirolak indartzea da"

"Nekazari giroko jendea biltzen da auzora, eta antolatzen ditugun ikuskizunak ere hortik doaz. Herri kiroltan saiatsen gara gehienbat; ez dira publiko zabalari begirako kirolak, eta ahal dugun neurrian horiek indartzea izaten da gure asmoa. Atal hori batez ere Julen Gabirondoren esku egoten da. Berak tentatu zituen telleriatarrak. Eta egia esanda, harriritua gaude desafiokoak sortu duen ikusminarekin, ETBko kamerak ere etorri dira. Kontuan hartuta Jai Batzorde txikia dela gurea, aurrekontu txikia daukagula, eta Xoxokako espazioa ere mugatua dela —plaza txikia, errepidea ondoan...—, ezin izango da nahi den guztia egin. Baina hala ere, apustu egingo nuke aurtengoa bezain erakustaldi ikusgarria prestatuko digula Gabirondok hurrengo urteetan".



**IDOIA
ETXEBERRIA**

"Laurak ere kirolari apartak dira"


"Duela bi hilabete Suharri eta Julenek anaiari eta bioi harriarekin lagunduko al genien galdetu ziguten. Suharri lehendik ibilita zegoen, hari apenas lagundu behar izan diogu. Julenekin, ordea, lanketa berezia egin behar izan dugu, berde-berde heldu baitziztaigun. Harrigarria da mutila zein azkar jarri den! Zoriontzekoa da zer nolako trebeziarekin heldu dion harriari. Telleriatarrak ere puntako kirolariak direla erakutsi dute, nahiz eta harri-jasotzaileak izan; ezin da sinetsi zein ondo aritu diren segan. Lauak ere kirolari apartak dira eta zaletuek badakite hori; horrexegatik hurbildu da hainbeste jende Xoxokara. Gaurko desafiokoak balio behar luke gazteak animatzeko eta antzeko kirol erakustaldiak egiteko".



**JULEN
GABIRONDO**

"Oso proba gogorra izan da laurontzat"

"Suharri eta biok bagenekien harriarekin joango zitzaigula denbora, kostako zitzaigula alderdi ahul hori behar bezala gainditzea. Neregatik zetorren beldurrik handiena, hasiberria bainaz. Tentsioa eta kezka gainezka eduki ditut, trakets hasi eta ez ote nintzen kapaz izango. Behintzat, bete ditugu lanak. Sumatzen genuen korrika paretsu ibiliko ginela eta, irabaztekoan, segan hautsi beharko genuela. Baina horretara iritsita, Telleria anaiek oso lan bikaina egin dute segan; bijoakie zorionik handiena, merezia dute! Alde txikiarekin baina aurretik iritsi gara desafioren azkenera, eta pozik nago. Zer esanik ez jendearen erantzunarekin. Tourmaletoko aldapetan txirindulariak bezala sentiarazi gaituzte, lasterketako saioan batez ere".



**BEÑAT
TELLERIA**

"Gure kalkuluak ez dira zuzen aterata"

"Abantaila harria jasotzerakoan ateratzea espero genuen, baina uste baino gutxiago lortu dugu hortik; izan ere, harrigarria izan da Julen eta Suharri nola ibili diren harriarekin. Korrikako lanetan berdintsu aritu gara, eta zoritxarrez hasierako abantaila hori ez da nahikoa izan. Egia da harri-jasotzea hiru-lau minutuko lana zela eta sega ia 20 minutukoa, beraz, ez da berdina aurkariari aurrea hartzeko batac eta besteak eman diezazuketean aukera. Nolanahi ere, ez da batere erraza alde aurretik zehaztea zeintzuk behar duten izan egin beharreko lanak, eta ezin zaio aitzakiarik jarri aurkariaren garaipenari. Izugarrizko poza ematen dit gaur jendetza erakarri dugulako Xoxokara. Mereziko luke berriro errepikatzea".

Kirolariek den-dena eman zuten

Udazkenaren hasieran eguraldia ez da oso egonkorra, eta hego haizeak nabarmen igo ohi ditu urtearen sasoi honetan hoztera doazen tenperaturak. Urriaren hamabian, eguerdi aldera, kirolean aritzeko beroa handi samarra zen. Irudietan ikus daitekeenez, kirolariek arropa soberan zuten. Eguraldia bikaina zen, bai, baina kirolean aritzeko egun gogor samarra izan zen.



Telleria anaia. AIURRI



Gabirondo-Irazustabarrena. AIURRI

Puntuaketa hiru proba ezberdinetan



Lehen planoan telleriatarrak, euren jardunean eroso zeudela. AIURRI

100 kiloko zilindrikoari 50 jasoaldi eman eta gero: Telleriatarrak (3:20) / Gabirondo-Irazustabarrena (5:18). Faborito nagusiak ziren telleriatarrak lehen proban, aurkarietarte handi samarra ateraz.



Xoxokako plaza ingurua jendez gainezka zegoen. AIURRI

Sei kilometroko lasterketa egin eta gero: Telleriatarrak (27:02) / Gabirondo-Irazustabarrena (28:33). Harrijasotzaileen aldeko denbora bigarren proban berdinduz joan zen, aurkarietarte segundu gutxiagotan egin zituztelako sei kilometroak.



Irazustabarrena lanean, atzean Gabirondo arnasa hartzen ari zela. AIURRI

700 metroko lursailean segan aritu eta gero: Telleriatarrak (48:54) / Gabirondo-Irazustabarrena (47:49). Hirugarren eta azken proban apustuan atzetik zetozen Gabirondok eta Irazustabarrenak txapela janzteko dena eman behar izan zuten.



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

"Gau sorpresa", une magiko hori

Oroitzapenean ondo gordeta daukat sekuentzia hura. Hogeita hamar urte atzera egin behar dut... Astearte bat zen, eta afaritan ginela, hara aitzak zer burutazioa eduki zuen: "Goazen Xoxokara! Ez-dakit-nongo-eta-badakit-nongo baserrietako gazteek antzerkia egin behar dute kalean". Buruntza auzoan jaioa eta hezia izaki, ondotxo zekien Xoxokako jendearen berri. Seme-alabok, ostera, gutxi edo deus ez. Baina nola esan ezetz antzerkirako gonbitea ordura arte sekula egin ez zigun aitari?

Gogoan daukadana da barre sanoak egin genituela gau hartan. Atrezzo gisa plazaren erdian jarritako mahai bat eta argi foko baten laguntzaz, auzoko gazteek kapaz izan ziren ikusleok ordubete gogoangarria igaro genezan. Pare bat sentsazio utzi zizkidan gau hark: gidoi gutxiarekin inprobisazio-ariketa itzelaren lekuko izan ginela, eta, antzerkiaren kontzeptio zorrotza desmitifikatzeko baliagarri izan zitzaidala. Antzerkia, jendaurrean hitzez eta gorputzez adierazteko aparteko doaiak

BA AL DAGO ANTZERKIAREN ESENTZIARI EUSTEA BAINO GAUZA MODERNOAGORIK?

dituzten pertsona pribilegiatuentzako erreserbatua dagoen kultur jarduera zenaren ideia, alegia.

Urtetan ez nintzen Xoxokako gau majiko hartara itzuli, harik eta Aiurrin lanean hasi eta hango jaien inguruko kronikak egin behar izan nituen arte. Zenbait edizio

ikusi, eta gozatu ditut ordutik.

Orain 30 urteko antzezleen seme-alabak edo bilobak izango dira gaurko antzezleak ziurrenera, kultur transmisioa egon den seinale. Urteak joan arren, mamian –eta estetikan ere esango nuke– nahiko antzeko izaten segitzen du egitarauan iragartzen duten "gau sorpresa" horrek.

Gogoeta sakonetan ibili gabe, gutxieneko argudio hari bati jarraituz, antzerkilari bakoitzak ahal duena egiten du, bapatekotasuna nagusi! Hori bai, nahita edo nahigabe, kontua da euskal gizarte zati baten parodia, eta autoparodia, irtetzen zaiela.

Igual etorriko zaizkigu antzerkizale puro-puroak esatera hori ez dela antzerkia, baserrietarkeri trakets bat besterik ez dela. Enfin, nahi lukete antzerkilari ugari eduki Xoxokako gazteek jendaurrean erakusten duten lotsagabekeria, umorea, grazia, euskaraz mintzatzeko berezkotasuna...

Ba al dago antzerkiaren esentziari eustea baino gauza modernoagorik? Alegia, taularatzen den antzeppen horrek, artilujio artifizialik gabe, ikusleengan giza sentimenduak piztea? Bada, hori erruz lortzen dute Xoxokan. Bejondeizuela belaunaldiz belaunaldi herri antzerkia bizirik mantendu duzutenoi. Urte askotarako!

Ikuskizun paregabea

Umoreari, xeblekeriari, bapatekotasunari eta herri hizkerari heldu zioten beste behin ere Goiburu-Xoxokako gazteek urteroko herri antzerki emanaldia burutzeko garaian. Aspalditik datorren usadioari jarraipena ematen diote oraindik



Antzeppenean parte hartu zuen taldea, emanaldiaren amaieran. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Xoxokako gazteak ez dira trebatzen saiatzen diren aktoreak, baina ikusleak barrezka jartzeko adinako ikuskizuna eskaintzen dute, eta ez da gutxi.

Xoxokako familia baten gora beherak plazaratu zituzten oraingoan. Etxeko andrea falta dela, aitzak eta hiru semeek oporretara ilargira joatea erabakitzen dute. Horretarako, gimnasio batean sartzen dira, ilargiraino joan ahal izateko prestaketa fisikoak egitera.

Behin dena ondo lotuta, NASAko koheteen abiatzen dira. Abiatu eta berehala, ordea, okerreko bidetik doazela ohartzen dira. Helmuga jakinik gabeko bidaian, azkenean, Afrika aldean hartzen dute lurra, koheteak su hartu eta gero. Lur arrotz hartan, tribu bateko biztanleekin adiskidetzen dira.

Horixe lerro hotzen bidez astearte gaueko emanaldiaz azal daitekeena. Antzeplanak bere xarma osoa zuzenekoan du, bat-bateko emanaldian. Eta, alde horretatik, Xoxokako antzezlana ikustea gutxienez behin bizi beharreko esperientzia da.



Ilargirako bidean, Afrikan bukatu zuten. AIURRI

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia
• Postontzia

Gazteen arteko proba

Desafioaren egunean, auzoko gazteak ere giza proban gogor aritu ziren. 550 kiloko harriari tiraka aritu ziren, beltzez eta horiz jantzita. 50 plaza egin eta gero, beltzak nagusitu ziren. Marka horretatik metro bakarrera geratu zen talde horia



Talde beltzeko partaideak: Aritz Lizaso, Mikel Garmendia, Jaione Garaialde, Uxue Manterola, Jon Sorrón, Jon Artola, Izaro Bengoetxea eta Ixiar Garmendia. Talde horian, berriz, honakoak aritu ziren: Julen Osa, Aitor Elgarreste, Axier Belauntzaran, Eider Manterola, Manex Otegi, Garazi Usabiaga, Mikel Zumeta eta Esti Gabirondo. AIURRI



Igande iluntzean eman zioten amaiera jaiari. AIURRI

Sagardo dastaketa jaien amaieran



Gaztetxoak helduekin batera aritu ziren igande arratsaldean. AIURRI



Herri kirolak, ezinbesteko osagaia Xoxokako jaietan. AIURRI

Urnietako jaiak Aiurri.eus webgunean:

**Protagonistak,
argazkiak,
bideoak...**

Odol emaileen bilkura datorren urriaren 28an

Gipuzkoako Odol emaileen elkarteak bere odol emaile garrantzitsuenei intsigniak eta diplomak banatuko dizkie Oianume sagardotegian antolatuko duen ekitaldian. Urnietarrez gain, Andoaingo eta Tolosaldeko odol emaileei ere aitortza egingo diete

Jon Ander Ubeda URNIETA

Odola ematea ekimen boluntarioa da, behar baino gutxiago eskertzen dena. Odol emaileen elkarteek, urtean behin bada ere, fin-fin aritzen diren emaileak aintzat hartu ohi dituzte. Urnietan bildu ohi dituzte Beterrri-Buruntzako eta Tolosaldeko hainbat lagun.

Jare, Villabonako hauraren amaren esker oneko bertsoa

Aurtengo edizioaren antolatzailea Amasa-Villabonako taldea da. Hango familia batek esker ona adierazi die odol emaileei, bertso bidez. Jare du izena, eta bi ama ditu: Amaia Agirre bertsolaria eta Ainara Manzisidor. Irudiak mila hitz baino balio handiagoa duela diote. Antzeko esan daiteke bertsoaren kasuan. Hona Agirreren bertso bikaina: *Osasuna da bizitzan sostengu eta zutabe, odola bizi eusle ta bihotz taupaden ondare. Gure alaba egin da hamaika poltsaren jabe, bolondres batzuei esker gizatasunez debalde. Leuzemia gaindituta osasuntsu dago Jare, eskerrik asko bihotzez zuekin zorretan gaude. Ez baikenuke lortuko odol emailerik gabe.*



2016an omendu zituzten Urnietako odol emaileak. AIURRI

Omenduko dituzten urnietarrak

Egitaraua (Oianume):

13:30 Domina, diploma eta garaikurren banaketa.

14:30 Bazkaria.

Zilarrezko dominak (+25 odol-ateratze):

- Pello Bergara Arotzena.
- M^a Mercedes Garcia Lopez.

Urrezko dominak (+40 odol-ateratze emakumeak eta +50 gizonezkoak):

- Carmen Hernandez Sanchez.
- Idoia Ugalde Arruti.
- Ander Aizbitarte Juangorena.
- Manuel Cerdeira Amaro.
- Pedro Martin Lopez.
- Emaille bikainak (+60 odol-ateratze emakumeak eta +75 gizonezkoak)**
- Idoia Arrona Rezola.
- Jose M^a Sorron Lizaso.
- J. Antonio Vivanco Palazuelo.

Niebla gaztearen heriotzak saminez bete du Urnieta


Larunbat iluntzean azken agurra eskaini zioten San Miguel elizan, ostegun arratsaldean hil eta gero

Jon Ander Ubeda URNIETA

Asier Niebla Martinez gaztearen egoerak okerrera egin zuen zurrumurrua ostegun goizetik (urriak 11) bolo-bolo zebilen urnietarren artean. Arratsaldeko 18:30ak aldera iritsi zen albiste, eta ezbeharrak saminez bete zuen Urnieta. Abuztuaz geroztik ezaguna zen bere egoera larria, baina bere adinari erreparatuta onera egin zezakeela uste zuen batek baino gehiagok.

Heriotzaren berri izan eta biharamunean Urnietako udalaren bozeramaileen batzordeak ez ohiko batzaraldia deitu eta honakoa adostu zuen:

1. "Bere babesa, elkartasuna eta maitasuna adierazi nahi dizkie Asierren familiartekoei eta lagunartekoei, bizitzen ari diren egoera garrantz honetan".
2. "Oinarri matxista duen indarkeriak berekin daraman edozein ekintzaren aurrean bere arbuio eta gaitzespen irmoena adierazten du".



Asier Niebla Martinez. FB

3. "Indarkeria matxistaren edozein motatako adierazpenen aurrean esku-hartzeko konpromisoa azpimarratzen du, eta berau ezabatzea sustatzen duten neurriak babesteko eta bultzatzeko bere borondatea berresten du".

Senideek, lagunak eta herrikideek larunbat arratsaldean azken agurra eman zioten Niebla gazteari, San Miguel elizan egindako hileta elizkizunean.

Ludoteka ezagutzeko aukera

Ostegun honetan Arantzubiko eskola zaharrean dagoen Ludoteka bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da

Erredakzioa URNIETA

Funtzioa hezitzailea du eta ikasurtean zehar asteleheneetik os-

tegunera 17:00etatik 19:00etara zabalik izango da. Izen-ematea 10 eurokoa da.

Kultur ekitaldiz beteriko asteburua aurretik

Ipuin kontaketa saioa, antzerkia, kontzertua eta bisitaldi gidatua iragarrita daude asteburu honetarako

Erredakzioa URNIETA

Marisa Taberero aski ezaguna da Urnietako haur txikien eta gurasoen artean. Ostiral honetan ipuin kontaketa saioa eskainiko du Lekaion, 17:30ean hasita. Egun berean, baina Saroben eta ilun-

tzeko 19:30ean hasita, "Maita(k)-ale borroka" eta "Cronopia Xpress" antzerki laburrez gozatzeko aukera izango da. Antzerki laburrak Aldundiaren ekimenez iritsi dira Urnietara, Katapultatua Tour Gipuzkoa formatu txikiko arte

eszenikoetako zirkuituaren bitartez. Ziklo horren baitan ere, Madeleine eta Grande days musika taldeek kontzertua eskainiko dute larunbatean. Saroben izango da, 19:00tan hasita.

Igandea ekitaldiz beterik dator. Goizean, Buruntzaldeko ibilbideen eguna, eta arratsaldean bi hitzordu gehiago. 17:00etan hasita, "Coco" filma Saroben. Eta 19:00etan elizako organoa ezagutzeko bisitaldi gidatua, Ana Belen Garciairen eta Haize Muñozen eskutik.



Ipuin kontaketa saioa, ostiral honetan Lekaion arratsaldeko 17:30ean hasita.

Helduen bertso eskolan izena emateko epea zabalik

"Bertsolaritza landu nahi izanez gero Urnietan hartuko zintuzkegu bero giro paregabea sei t'erditan (edo) Saroben biltzen gara asteazkenean!!!".

Informazio gehiago: hernanikobertsoeskola@gmail.com.

Mendi irteerak igandean, eskualdean barrena

MENDIZALETASUNA Tipi-tapa eskualdea barrutik ezagutzeko gonbita luzatu dute Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek. Eskualdeko mendizale taldeen laguntzaz, igande honetarako Buruntzaldeko 11. Ibilbideen Eguna antolatu dute

Erredakzioa USURBIL

Ekimenaren bitartez, "lehiatze-ko ez den eta denentzat egokia den jarduera fisikoa egiteko eta landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Bidezidor eta bideak ditugu -bost ibilbide daude aukeran-, landako paisaiatik barrena pasieran gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz". Partaide bakoitzak abiatzen deanean txartel bat jasoko du, irteerako herriak zigilatuta. Bi ibilbide egiten dituenak motxila bat jasoko du opari. "Salbuespenak, Andoain-Lasarte-Oria eta Andoain-Usurbil ibilbideak dira, edozein norabidean eginez gero aipatutako motxila lortuko baitu". Itzulerarako ohi bezala, autobus zerbitzua antolatu da. Ibilbideetan ez galtzeko, "ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude; bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak".



Udal ordezkariak egunaren aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Informazio gehiago: buruntzaldea.eus

- Urriak 21, igandea. 08:00-14:00.
- Herri bakoitzaren koloreak:
 - Andoain: urdina.
 - Lasarte-Oria: urre zaharra.
 - Urnieta: berdea.
 - Usurbil: laranja.
- Antolatzaileak: Buruntzaldeko Udalak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

- Mendi irteera guztiak eskualdeko taldeen lankidetzari esker burutu ahal izango dira. Laguntzaileak: Andatza M.K.T. (Usurbil), Euskalduna Mendigoizale Taldea (Andoain), Ostadar S.K.T.-ko mendizaleen atala (Lasarte-Oria), Super Amara (kontrol guneetako jan-edanaren hornitzailea), Eusko Jaurlaritza.

Ibilbideak eta jakin beharrekoak

- Itzuli handia: Buruntzaldeari 27 Km.-ko bira oinez. 08:00tan Lasarte-Oriatik.
- Andoain-Lasarte-Oria: 7,9 Km. Oinez egitekoa, mendiko oinetakoak beharrezkoak. Ibilbidea osatzeko bi aukera: Buruntzan gailurra eginez edo inguratuz.
- Andoain-Urnieta: 4,8 Km.; oinez edo bizikletaz egitekoa.
- Andoain-Usurbil: 14,9 Km. Andatzen barrena; oinezkoentzat soilik, mendiko oinetakoak beharrezkoak.
- Lasarte-Oria-Urnieta: 3,9 Km.; oinez edo bizikletaz egitekoa.

- Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga (Santuenetik barrena, Mapileraino): 9 Km.; oinez edo bizikletaz egitekoa.

Kontrol guneak, hamaietakoak:

- Usurbil: Santuenean Zorrotzeko zubiaren parean. Aginagan, Mapil.
- Andoain: Kontzejupea.
- Lasarte-Oria: San Pedro elizaren ondoko plaza.
- Urnieta: Kontzejupea.

Itzulerarako bus zerbitzua:

- Andoain, Goikoplaza atzealdea: 12:30, 13:30, 14:30.

- Urnieta, Kioskoko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40.
- Aginaga, Ezpaldiko gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.
- Usurbil, San Inazioko biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.
- Lasarte-Oria, Dorretzeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.

Oharra: partaide bakoitzak abiatzerakoan txartela jasoko du abiatzen den lekuko zigiluarekin. Amaieran nor bere herrira itzultzeko bus zerbitzua baliatu ahalko da. Ezinbestean aipatu txartela erakutsi beharko da.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA, SASKI

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Euskalduna-Roteta	3-1
Urnieta-Hernani	0-5

SAILKAPENA

1	Mundarro	15 puntu
3	Euskalduna	12 puntu
15	Urnieta	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30	Tolosa-Euskalduna / Lar, 20
17:30	Trintxerpe-Urnieta / Lar, 20

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK	
Urnieta-Oiartzun	5-0
Mutriku-Euskalduna	2-0

SAILKAPENA

1	Urnieta	9 puntu
6	Euskalduna	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Urnieta-Aloña Mendi / Lar, 20
19:30	Oiartzun-Euskalduna / Lar, 20

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA	
Axular-Euskalduna	0-3

SAILKAPENA

1	Danena	15 puntu
5	Intxurre	9 puntu
6	Euskalduna	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00	Euskalduna-Danena / Lar, 20
-------	-----------------------------

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA	
Anaitasuna-Euskalduna	0-3

SAILKAPENA

1	Billabona	15 puntu
4	Ilintxa	9 puntu
5	Euskalduna	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:00	Euskalduna-Beasain / Lar, 20
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA

EMAITZAK	
Euskalduna-Lazkao B	1-0
Usurbil-Urnieta	2-0

SAILKAPENA

1	Usurbil	13 puntu
3	Urnieta	12 puntu
7	Euskalduna	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:15	Mundarro-Euskalduna / Lar, 20
18:00	Urnieta-Ostadar / Lar, 20

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA	
Bidasoa Irun-Urnieta	27-25

SAILKAPENA

1	Haritza Eibar	4 puntu
5	Egia	3 puntu
6	Urnieta	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00	Urnieta-Elgoibar / Lar, 20
-------	----------------------------

SENIOR MAILA, NESKAK

ASTEBURUKO PARTIDA	
17:30	Leizaran-Ordizia / Lar, 20

SENIOR 2. MAILA

ASTEBURUKO PARTIDA	
20:00	Corazonistas B-Urnieta / Lar, 20

ASTEBURUKO PARTIDA 2. MULT.

12:00	Hondarribia-Leizaran / Ig, 21
-------	-------------------------------

JUBENIL MAILA

SAILKAPENA		
1	Hettich ZKE	6 puntu
2	Gure Auzune-Egibide	4 puntu
3	Urnieta	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15	Urnieta-Endika / Lar, 20
-------	--------------------------

SAILKAPENA, 2. MULTZOA

1	Leizaran	6 puntu
2	Ereintza	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

13:00	Leizaran-Amenabar / Lar, 20
-------	-----------------------------

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA, 1. MULTZOA	
Bergara-Urnieta	13-18

SAILKAPENA

1	Egia Seicar	6 puntu
3	Arlan Elgoibar	5 puntu
4	Urnieta	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

-:-	Urnieta / Atsedena
-----	--------------------

EMAITZA, 2. MULTZOA

Aloña Mendi-Leizaran	28-23
----------------------	-------

SAILKAPENA

1	Usurbil	8 puntu
2	Ereintza Beissier	6 puntu
3	Leizaran	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30	Leizaran-Usurbil / Ig, 21
-------	---------------------------

SASKIBALOIA

JUNIOR MAILA

EMAITZA	
Ganbara-Ordizia	21-65

SAILKAPENA

1	Ordizia	2 puntu
5	Take	1 puntu
6	Ganbara	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Hernani-Ganbara / Ig, 21
-------	--------------------------

KADETE MAILA

EMAITZA	
Zast Orío-Ganbara	56-37

SAILKAPENA

1	Hernani	2 puntu
5	Ganbara	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15	Ganbara-Take / Lar, 20
-------	------------------------

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 19

ANDOAIN Lehiaketa

Argazki lehiaketa deitu du Udalak, 2019ko Udal egutegia osatzeko. Parte hartzeko aukera zabalik dago, azaroaren 5a bitarte.
andoain.eus.

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberero, haurrentzat.
17:30, Lekaio. Dohainik.

URNIETA Antzerkia

'Maita(k)ale borroka' eta 'Cronopia Xpress' antzerki laburrak.
19:30, Sarobe. Dohainik.

URNIETA Antzerkia

Udal antzerki tailerra abiatuko da, Mikel Agirregomezkortaren zuzendaritzapean. Izena-emateko epea zabalik dago.
18:30-20:30, Sarobe.

LARUNBATA 20

URNIETA Kontzertua

Madeleine, Grande days.
19:00, Sarobe. Dohainik.

ANDOAIN Dantza

Martin Zalakain, Argiaren eskutik.
20:00, Bastero. 3 euro.

IGANDEA 21

ANDOAIN Bisitaldi gidatua

Ondarearen Europako eguna. 'Andoingo kale eta plazak: emakumeen emaria ezkutuan'.
09:30, Berrozpe etxea.

ALTSASU Nafarroa Oinez

Alberto Agirre abesbatzak emanaldia eskainiko du elizan.
10:00, Asuncion parrokoa.

ANDOAIN Haur ikuskizuna

'Kontu kantari: mendian ibiltari', txotxongiloekin egindako kontzertua.
17:00, Bastero. 4 euro.

URNIETA Bisitaldi gidatua

Ondarearen Europako eguna. 'Cavaille-Coll organoaren interpretari, erakusle eta zaindari'.
19:00, Urrietako eliza.



Larunbat honetan Andoainen ikusteko aukera izango da. IÑAKI ZUGASTI

ANDOAIN Martin Zalakain ikuskizuna

Dantza, antzerkia edota musika batzen dituen ikuskizuna. Taula gainean Argiako eta beste dantza talde batzuetako dantzariak, baita Ander Lipus aktorea ere.
Urriak 20, larunbata. 20:00, Bastero. 12 euro, zenbakitua.

ANDOAIN Irteera

Urriaren 27an Sendavivara irteera antolatuko du Gazte Lokalak. Urriaren 21ean amaitzen da izena emateko epea. Prezioa: 20 euro.
Izena emateko azken eguna.

ASTEARTEA 23

ANDOAIN Tailerra

Origami tailerra Daniel Dorronsororekin. 7 urtetik gorakoentzat.
17:30, udal liburutegia.

ANDOAIN Hitzaldia

"Tratu onak: indarkeria matxista nerabezaroen prebenitzeko tresna", Maria Antonia Caro Hernandezen eskutik.
19:00, Bastero.

ASTEAZKENA 24

ANDOAIN Aurkezpena

Jose Antonio Recondo idazleak bigarren karlistaldiari buruzko hitzaldia eskainiko du. Elkarrizketa astekari honetan, 2. orrialdean. Liburua salgai izango da bertan.
19:00, Bastero.

OSTEGUNA 25

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko batzaraldia.
19:00, Udaletxea.

OSTIRALA 26

ANDOAIN Sariketa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak, XXX. urteurrenoko ekitaldi nagusia.
19:00, Bastero.

ANDOAIN Lehiaketa

Bidaien aholkuei buruzko "Gomendatzen dizut" lehiaketa, 12-18 urtekoentzat. Saria: 60 euroko erosketa-txartela. Urriaren 26a, azken eguna.
Gazte Informazio gunea.

ANDOAIN Lehiaketa

Guitar Hero lehiaketa.
Gazte Lokala.

IGANDEA 28

URNIETA Ikuskizuna

"Burbuila" familia ikuskizuna.
17:30, Sarobe. 3 euro.

ZINEMA

ANDOAIN

Larunbata, 27:
19:30; 22:00.
Igandea, 28:
19:30.
Astelehena, 29:
19:30; 22:00.

BASTERO

El viaje de Nisha
Igandea, 21:
19:30.
Astelehena, 22:
19:30; 22:00.
La sombra de la ley

Ana y Bruno
Lar, 27: 17:00.
Igandea, 28:
17:00.


**SAROBE****Coco**

Igandea, 21:
17:00.

Errementari

Asteazkena, 31:
17:00.
Euskaraz.

SINOPSIK

**El viaje de Nisha**

Zuz.: Iram Haq. **Herr.:** Norvegia (2017). **Iraupena:** 106 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Familiaren nahia gurea ez denean

Nisha norvegiarra da. Etxean pakistaniar alaba perfektua da, eta kalean mendebaldarren

gisa jokatzeko du. Bi munduak elkar jotzean aitak Pakistanera bidaliko du.

Coco

Zuz.: Lee Unkrich, Adrián Molina. **Herr.:** Espainia (2017). **Aktoreak:** Anthony Gonzalez, Renee Victor... **Iraupena:** 96 min.

Film ezaguna Saroben

Migelek 12 urte ditu, eta musikan mito bihurtzea du amets, nahiz eta bere familiak musika sortzea debekatu egin dion. Ezkutuan ikasiko du gitarra jotzen etxeko ganbaran.

Bertan, hilda dagoen Ernesto de la Cruz musikariaren argazkiak ikusiko ditu, eta bere idolo bihurtuko du. Musikarako duen zalentasunak "Hildakoen Lurrean" sartzera eramango du.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

ZORION AGURRAK



<p>ANDOAIN Axier 7 urte beteko ditu urriaren 18an. Orain arte bezala jarraitu. Muxuak maite zaitugunon partetik.</p>	<p>ANDOAIN Irei Gure bihurritxoak 2 urte bete zituen urriaren 17an. Zorionak mattia!!! Muxu potoloak, etxeokak.</p>	<p>ANDOAIN Maddi 9 urte beteko ditu urriaren 23an. Zorionak eta urte askotarako! Muxu handi bat! Etxeokak.</p>	<p>ANDOAIN Maren Baina posible al da urriaren 17an dagoeneko 9 urte betetzea? Merezi bezala ospatuko dugu!! Etxeokak.</p>	<p>ANDOAIN Ane Ane Muñozek 4 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak eta ondo pasa Tomasa! Etxeokak.</p>	<p>ANDOAIN Jon eta Oier Zorionak bikote!! A ze bi guapo!! Jonek irailaren 14an 23 urte eta Oierrek 21ean 16 urte. Jarrai ezazue zintzo eta jator. Muxuak eta besarkadak etxeokoen partetik.</p>
---	--	---	--	--	--



AIURRI

Urnietan Euskaraldiak bi hamaikako izango ditu

Urnietako Sanmieletan herriguneko hamaikakoa aurkeztu eta gero, Xoxokako jaietako azken egunean Goiburu-Xoxoka aldeko bigarren hamaikakoa aurkeztu zuten. Hauexek azaroaren 23tik abenduaren 3ra ere Euskaraldiaren sustatzaile lanetan arituko direnak:

E Begoña Ubillos, **U** Ane Loinaz, **S** Joxe Albizu, **K** Eli Etxebarria, **A** Olatz Manterola, **R** Kruz Errazkin, **A** Joxe Ramon Bengoetxea, **L** Jose Luis Toledotxiki, **D** Maite Begiristain, **I** Lander Cia eta **A** Joseba Goikoetxea.

MERKATU TXIKIA

LANA

Gazte euskalduna arratsalde zaindu edo partikularrak emateko prest. **630 243 850.**

Andoainen zaintzailea behar da eguerditan bi haur zaintzeko: **650 341 108.**

AUTOKARABANA SALGAI

Adriatik 680SK. 73.000 km. 2800 motorra, 145 CV. Oso ondo zaindua. **688 610 809** (Ainhoa).

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 20 eta igandea 21
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12. 943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 20 eta igandea 21
AIZPURU: Latxunber berri, 11. 943 336 077. Hernani. Gauez, bi herrietan: Castilla. 943 552 941. Hernani.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



La 2.ª Guerra Carlista en Gipuzkoa (1872-1876)

Liburuaren aurkezpen ekitaldia
Urriak 24, asteazkena. 19:00
Andoaingo Bastero Kulturgunea

Hitzaldia amaituta liburua bertan erosi ahal izango duzu, 25€-ren truke (liburu-dendetan 30€).

Hizlari, egile:
J. Antonio Recondo Bravo

Aurkezpena:
Francisco Etxebarria





Ortzadarra Andoainen. AIURRI

Ortzadarra, ezusteko gonbidatua sexu erasoen aurkako bilkuran

Erredakzioa ANDOAIN

Urriaren hasieran Lasarte-Orian Andoaingo emakumezko batek jasandako sexu erasoa salatzeke elkarretaratzea deitu zuten Andoaingo Goikoplazan, joan zen urriaren 10ean. Orduantxe euria hasi zuen, eta bertan zirenentzat eguraldiak ezusteko atsegina eskaini zuen. Izan ere Buruntza aldera begira ortzadarra dotore agertu zen.

Bertsotan arituko dira elkarrekin Aitor eta Jon Mendiluze aita-emeak

Erredakzioa ANDOAIN

Sagardogileen elkartearen eskutik, datorren urriaren 28an Astigarragako Petritegi sagardotegian Aitor eta Jon Mendiluze bertsotan arituko dira.

AZKENA

Bertso saio solidarioa Bastero kulturgunean

Buruko osasun arazoa duten pertsonen eta senideen Agifes Gipuzkoako elkarteak bertso saioa antolatu zuen Basteron, joan zen urriaren 11n. Bertso sorta horretatik, Colina eta Maiaren artekoa nabarmendu zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Unai Elizasu gai-jartzailearen agindutara, honako bost bertsolari aritu ziren Andoainen kantari: Aitor Mendiluze, Jon Maia, Sustrai Colina, Alaia Martin eta Amets Arzallus.

Bipolartasuna

Elizasu: "Pertsona berbera zarete. Pertsona horrek trastorno bipolarra dauka. Sustrai pertsona horren alde iluna da, eta Jon Maia alde euforikoa". Gaiak jarrita, bertso bana:

"Euskal selekzioa"

Sustrai Colina:

Agintariak zertan dabilta beti kirola sustatzen. Urtean behingo paripeekin ez ote dira nazkatzen.

Ate batean bi gol sartzeak ez du herri bat askatzen, eta gainera zer nahi duzu futbola etzait gustatzen.

Jon Maia:

Jai ofizialak izatekotan falta zaizkigu bi urte, eta ze ondo sarrerak ere gratis eman dizkigute. Venezuela ez da ekipo handi bat hori badakizu zuk ere, baina Frantzia etorrita ere irabaziko genuke.



Jon Maia, Amets Arzallus, Alaia Martin, Sustrai Colina eta Aitor Mendiluze kantari aritu ziren urriaren 11n Andoaingo Bastero kulturgunean, Buruko osasun arazoa duten pertsonen eta senideen Agifes Gipuzkoako elkartearen alde. AIURRI

"Euskal Herriko pinuak"

Sustrai Colina:

Garai batean pinuz beteak mendi magalen zatiak. Ta orain berriz atera behar ditugu musu zapiak. Eboluzio ta aurrerapenak horren dira basatiak. Lenik pinua galduko dugu ta ondoren gizakiak.

Jon Maia:

Badakigu gizakia pinutik erori zena. Pertsona bilakatuta munduetatik barrena. Ta ze polita marroia uda hontako eszena. Aurten sekula baino lenago iritsi da udazkena.

"Gaurko menua: babarrunak, txuleta eta mamia".

Sustrai Colina:

Babarrun gehitxo jaten denean ondoren puzker festa maiz. Txuleta, berriz, egiten die zain eta arteriei gaitz. Mamia, berriz, baietz serbitu gutxi eginda erre usaiz. Nahi duzuenafal zazute, ni begetarianoa naiz.

Jon Maia:

Ni begetarianoa naiz baina beti ere, segun. Eta katalogo honek ene! ze argazki album. Babarrunekin pentsatzen dezu egingo dezula ai bum! Baina eskerrak mamiarekin dena bajatuko zaigu.

"Zubi luzea dator, eta familia guztia autoan sartuta, Landetara doa".

Sustrai Colina:

Gu euskaldunak ginela baina espagnolitoak gara. Pilarikaren eguna heldu, jaia hartuta Landetara. Trasto guztiak kabitzekotan nahiz eta amona laga. Jada semea galdezka hasi da, "aitatxo, zenbat falta da?"

Jon Maia:

Bi loro, sei haur eta txakur bat denak txoko ilunean. Aiton-amonak ere ez doaz oso modu txukunean. Bederatzi bat elkartu gara gure Renault Lagunean. Behintzat kontrolik ez da egoten Pilarika egunean.

Basteroko bertso saioaren hainbat bideo www.aiurri.eus webgunean ikus daitezke, baita Aiurrik Youtuben duen kanalean ere.

"Gerrateko ibilerak" Iñaki Alkain - Antonio Zavala

Liburua

Salgai: 10€

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko egoitza
Aiurriko erredakzio bulegoa

